



KONTRATU BATEN ESLEIPENAREN EBAZPENA, EFA227/16/LINGUATEC “MUGAZ GAINDIKO KOOPERAZIOAREN GARAPENA ETA HIZKUNTZA-TEKNOLOGIEN JAKINTZAREN TRANSFERENTZIA” PROIEKTUAREN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIO ADMINISTRATIBORAKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUARI DAGOKIONA

Leire Cancio Orueta, ELHUYAR Fundazioaren zuzendaria, Fundazioaren kontratazio-organo gisa dagozkion funtzioak betez

EFA227/16/LINGUATEC “Mugaz gaindiko kooperazioaren garapena eta hizkuntza-teknologiaren jakintza transferentzia” proiektuaren kudeaketa eta koordinazio administratiborako laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzeko espedientea ikusita.

INICIATIVAS INNOVADORAS SAL enpresa bakarrik aurkeztu dela ikusita.

Teknikariz osatutako unitate kudeatzailearen akta ikusita, zeinetan INICIATIVAS INNOVADORAS SAL enpresak aurkeztutako azken eskaintzak aztertzen eta balioztatzen baitira lizitazioaren pleguan aurreikusitako proposamenen balorazio-irizpideen arabera:

a.) Irizpide ez-ekonomikoak, 70 punturaino

Hauek baloratuko dira atal honetan:

- | | |
|--|---------------|
| 1 - Lanen metodologia eta antolaketa | 20 punturaino |
| 2 - Zerbitzuen edukia | 25 punturaino |
| 3 - Eskumenen eta giza baliabideen gehikuntza, gutxieneko taldearekiko (balorazio automatikoa) | 25 punturaino |

b.) Irizpide ekonomikoak, 30 punturaino

Unitate kudeatzailearen balorazioaren emaitza ikusita, INICIATIVAS INNOVADORAS SAL enpresak egindako proposamenak lortu du emaitzarik onena, 90 punturekin.

Hori dela eta,

HAU EBATZI DUT: EFA227/16/LINGUATEC “Mugaz gaindiko kooperazioaren garapena eta hizkuntza-teknologiaren jakintza transferentzia” proiektuaren kudeaketa eta koordinazio administratiborako laguntza teknikoko zerbitzuaren kontratua esleitzea INICIATIVAS INNOVADORAS SAL enpresari, haren eskaintzaren prezioan eta gainerako kondizioetan.

Usurbilen, 2018ko apirilaren 9an.

ELHUYAR FUNDAZIOA
I.F.Z.: G-20780896
Zelai Handiaren 3. Oinalde industrialdea
20170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tel.: 943 363 040

Leire Cancio Orueta andrea

ELHUYAR Fundazioaren zuzendaria